

Administrazio Publikoaren Jardunaliaren Agiria

**Mugikortasun Iraunkorraren Planaren Aurreproiektuaren aurretiko kontsulta
prozesuen Agiria - Nafarroa 2018-2030**

Iruñea Nafarroako Garraio Zerbitzuaren Bilera Aretoa. 2018.ko ekainak 21

Parte hartzaileak:

- **María Paz Alvero (Iruñerriko Mankomunitatea)**
- **Rafael Araujo (Nafar Gobernuko Lurralde eta Paisai Zerbitzua)**
- **Isabel Carrilero (SODENA)**
- **Carlos Chocarro (NASUVINSA)**
- **Daniel Echeverría (Garraio Zerbitzua. Nafarroako Gobernua)**
- **Ion Erro (21 Proiektua)**
- **Koldo Fernandino (Hirigintza Kudeaketa. Iruñako Udala)**
- **Miguel Ángel Jiménez de Cisneros (Garraio Zerbitzua. Nafarroako Gobernua)**
- **Rafael Lázaro (RENFE)**
- **José Antonio Munuera (RENFE)**
- **Jesús Velasco Pérez (Iruñerriko Mankomunitatea)**
- **Eugenio Vila (Trafiko eta Bide Segurtasun Eremua. Polizia Forala. Nafarroako Gobernua)**

Gai Zerrenda:

- ✓ **Garraio Zerbitzuak proposatutako eztabaida gidoiari buruzko informazioa.**
- ✓ **Parte hartzaile metodologiaren azalpena.**
- ✓ **Eztabaida Jardunaldiaren debatea gaien arabera.**

1. Garraio Zerbitzuak proposatutako eztabaida gidoiari buruzko informazioa

Ignacio Nagore, Herri Lan Zuzendaria Mugikortasun Iraunkorraren Planaren Aurreproiektuaren aurretiko kontsulta prozesuen berri ematen du.

Plan hau egitearen beharra eta nahia Nafarroako Gobernuaren programa akordioa betetzeko sortu da eta Mugikortasun Iraunkoarren Lege Foralaren oinarria izango da.

Zirriborroa osatzeko eman diren pausuak azaltzen ditu eta jendea animatzen du egin behar diren bileretan parte hartzera.

2. Parte hartzaile metodologiaren azalpena.

21 Proiektua laguntza teknikoaren arduradunaren partetik, Ion Errok hitza hartzen du. Erro erabili behar den metodologia azaltzen du. Gaiak, 5 ardatz ezberdinen inguruan eztabaidatuko dira. Ardatzak hauek dira:

- Zerbitzu publiko eta pribatuetarako sarbidea
- Irigarritasun segurua eta unibertsala
- Industria eta teknologia.
- Garraioa eta lurraldearen antolakuntza
- Politika eta garraioaren gobernantza.

3. Eztabaida Jardunaldiaren debatea gaien arabera

Zerbitzu publiko eta pribatuetarako sarbidea

- 'Eskola Seguruak' bultzatu. Horrela, bideko segurtasuna hobetuko da. Beharrezkoa baita izango da eskoletan proiektu bezala ikastea.
- Eskola Seguruaren programa mugikortasun iraunkorrean sensibilizatzeko erabili behar da
- Bide Segurtasunaren presentzia iraunkorra PDMS.an aurreikusitako neurri guztietan, mugikortasun jasagarria sustatzeko.
- Bigarren Mailako Derrigorrezko Hezkuntza zikloetarako eskola publikoen garraioaren eskaerari arreta

- Eskola garraioa beste garraio publiko batzuekin erabilera bateragarria izan dadin saiatu. Adibidez umeak libre uzten dituzten lekuak erabili
- Mugikortasun iraunkorreko programak sustatzea, Gobernuaren Departamentu ezberdinak koordinatuz: Hezkuntza, Osasuna, Kultura.... Garraio eta Herri Lanekin.

Irisgarritasun segurua eta unibertsala

- Zerbitzuen irisgarritasun unibertsala bultzatzea, lurralde antolamendu egokia koordinatuz
- Bide segurtasuna handitu trafikoaren antolakuntza politikak eta biztanleriaren sensibilizazioa bultzatuz. Sail esberdinen artean koordinatuta Sentsibilizazio kanpainak sustatu: alkohola eta drogak, mugikortasun modu ezberdinak...
- Mugikortasun Planak dituzten Administrazio ezberdinak koordinatu: Udaletxeak, Mankomunitateak, Nafarroako Gobernua. Beharrezkoa da Mugikortasun Iraunkorra bultzatuko duen Lege Foral bat egitea: garraio publikoa sustatzea eta erabiltzaile guztien segurtasunerako azpiegiturak egokitzea
- Nafarroako Errepide Sarean, segurtasun sareak sartu behar (espaloi seguruak, bizikleta bideak)
- Nafarroako Bide Segurtasuneko Estrategia PDMSarekin koordinatu
- Ordainketa sistemak eta mugikortasun orokorrerako sarbidea sartzea
- Bizikleta eta patinete elektrikoa erregulatzeko neurriak sartzea bide segurtasun eta mugikortasun iraunkorraren sistemetan
- Landa eremuetan dauden geltokietan eta autobus geltokietan irisgarritasun unibertsaleko sistema seguruak sartzea. Batez ere mugikortasun murriztua duten pertsonentzat
- Garraio publikoari lehentasuna ematea: garrantzitsua da ibilgailu pribatuaren erabilera eraginkorra bultzatzea. Garraio publikoak lehentasuna izan behar du. Mugikortasun iraunkorraren lehentasuna horrela izan behar da: 1º) oinez, 2º) bizikletaz, 3º) garraio publikoa, 4º) ibilgailu pribatua.

- Nafarroako dentsitatea eta biztanleriaren egitura garraiobideen arteko konexio eraginkorra eskatzen du- Ibilgailu pribatua pertsonen mugikortasunean garrantzi handia daukate eta horregatik Planaren barruan sartu behar dira, energia berriztagarrien alternatiba bezalako printzipioetatik abiatuta, eta kotxeak partekatzeko plataformak (mugikor aplikazioen bidez) sortu
- Garraio sistema malguago bat ezartzeko beharra herritarren mugikortasunaren premiak kontutan hartuz
- Mugikortasun iraunkorrarekin gizartea hezitu eta sentiberetu behar da. Mugikortasunaren aldeko kultur aldaketa eta erantzukizuna sustatzea. Horrela gizarteak Administrazioari behar dituen beharrak esango dio. Eskola curriculum.ean mugikortasun iraunkorra sartu.

Industria eta teknologia.

- Ibilgailu elektrikoentzat karga-puntuak azkar eta hobeto banatu behar dira: energia forma berriak eta mugikortasunaren kudeaketa modu berriak, abaintalak ezagutaraztea, bilgailu elektrikoak erosteko zerga-onurako informazioa eman
- bilgailu elektrikoak non karga daitekeen eta ibilgailua nola partekatu dezaketen jakinarazten duten aplikazio teknologikoak garatu
- Ibilgailu elektrikoaren alokairu puntuak sustatzea. Alokairu publikorako bideragarritasun azterlana bultzatu.
- Ibilgailu elektrikoak erabiltzen duten kooperatiba pribatuak sustapeneko laguntza instituzionala sortu: ibilgailu bat behar da jende ezberdinen artean erabiltzeko. Mugikortasuna zerbitzu bezala. Horretarako aldaketa kultural bat eman behar da ibilgailuaren erabilera pribatuari dagokionez
- Erregai berrien aldeko apustua: biokonbustioa
- Ibilgailu pribatu berdearen aldeko publizitate kanpainak arraiskutsuak dira ibilgailu pribatuak sustatzen dutelako. Kutsadura mantentzen da eta aparkatzeko arazoak mantentzen dira.

- bilgailu karbonizatuak eta elektrikoak sustatzeko ahaleginak egin behar dira , batez ere garraio publikora zuzenduta. Bi helburu izango ditugu: kutsadura murriztu eta garraio motak aldatu.
Garraio publikoa mugikortasun modu berrien eta energia iturri berrien traktore gisa.
- Kontzientzia handiagoa dugulako, bizikletaren erabileraren handitzea eman da. Biziketa aperkaleku pribatuen haundiketa eman da.
- Aisialdirarekin loturiko gertaeren inguruko Mugikortasun Planak sustatu. Gertaera handietan (sanferminak, Erregen Kabalgata, Nafarroa Oinez, kirol gertaerak) ez da mugikortasunaren plangintzarik egiten eta aparkalegu arazo handiak daude.
- Industria poligonoetan Lan Mugikortasun Planak sustatzea Sarrigurengo Berrikuntza Hiria, Landaben). Auto- hilarak egunero ematen dira. Planak kanpoko mugikortasuna arautzeko neurriak eduki behar ditu (poligonoetan sarrerak eta irteerak) eta baita barneko mugikortasuna arautzeko (poligono bereko eraikinen arteko desplazamenduak)
- Big dataren erabilera haunditu eta telefono konpainekin elkarlana egin

Garraioa eta lurraldearen antolakuntza

- PDMSk aurreikusitako neurriak finantzatzeko txosten ekonomiko bat gehitu behar zaio, batez ere Udal eta Eskualdeko Mugikortasun Planetan
- Hirien Plangintza Orokorrak eta Udalerrietako Mugikortasun Planak bat egin behar dira koherentzia izan dezaten.
- Lurralde Estrategian eta POTetan planifikazio batzuen arteko kontraesanak indarrean jarraitzen dute Mugikortasun Iraunkorrerako Plana ikusita. Hirigintza mugikortasun iraunkorraren kontzeptu berrira egokitu beharra dago: mugikortasun iraunkorraren arauak aldatzea eskatzen du
- .Egin behar den Lege Foralak garraio modalaren banaketa egin beharko luke, lehentasunak eta gaitasunak, hiritarren beharrak betetzen dituen konektibitatea

eta

errepide garraio interurbanoen lehentasuna bideratu kontuan izan behar du.

Politika eta garraioaren gobernantza.

- Ze mail arauemaile izan behar duen mugikortasunak galdetzen da. Derrigorrezkoa izan behar den edo PGOUs eta PSIS egongo den.
- Mugikortasun Planen aplikatzen den esparruei buruz estabaidatzen da. Eskualdeko esparruan egoteko konpromisoa hartzen bada, Konstituzioa eta Tokiko Erregimenaren Oinarrien Legea jurisdikzio-esparrua errespetatu beharra dago.
- Nafarroako Gobernuak hirigintzako plangintza orokorrean duen gainbegiratze lanetan, ulertu behar du Mugikortasun Iraunkorrerako Plan Zuzentzailea inspiratzen duten printzipioekin bat etorri behar dela eta ezin direla kontraesanik eman
- Uste da Mugikortasun Plana ez duela indarra izango gainerako politikak eta Departamentuak baldintzatzeko.
- Nahiz eta Nafarroako Garraio Agintaritzak PDMSn agertzen den, ez dira neurri zehatzak agertzen.
- Nafarroako udalerrien biztanleria eta administrazio konposizioa kontuan hartuta, beharrezkoa da Mugikortasunari buruzko derrigorrezko araudia egotea, iraunkortasuna hirigintza plateamendu guztietan egon dadin. Garraio Zerbitzutik esaten dute herrialde ezberdinetan, errealitatiak ose ezberdinak direla. Horregatik ezin da derrigortu eta neurriak poliki poliki bultzatu behar dira baizik.

-